

OINARRIZKO EKINTZAK

- ONLINE →

- Bezeroa dendako web-gunera sartzen da, dendako katalogoa ikusten hasten da, artikulu bat gustatzen zaio eta zestara sartzen du. Zestako artikulua erosten du eta prezio totala agertuko zaio (bidalketa gastuak barne 3€).



- Guri abisua iristen zaigu, erosketa onartu eta jarraipen zenbakia bidaltzen diogu (gmail baten bidez), bezeroa bere paketea non dagoen jakin ahal izateko.
- Paketea bidaltzen diogu eta bezeroari iristerakoan Gmailean entregatuta bezala agertuko zaio, ondoren, balorazioa bat egiteko aukera eskaintzen diogu, bertan gure zerbitzua nolakoa izan den eta bere esperientzia ona edo txarra izan den jarri dezan.
- Arazoren bat balego, Gmailetik edo gure sare sozialetatik idazteko edo dendara etortzeko aukera eskaintzen dugu.



- Demagun ez zaiola ondo geratzen arropa edo ez zaiola gustatu, bezeroak itzulketa egiteko aukera dauka. Itzulketa egin ahal izateko beharrezkoa da arropak etiketa izatea eta erosketa ticket-a edukitzea, bi gauza horiek eduki ezker, erosketaren epea kontuan izanda, hilabate bat edukiko du bere artikulua itzultzeko. Kondizio hauek betetzen badira, erosleak artikulua itzultzeko aukera izango du.

● PERTSONEAN →

- Bezeroa dendan sartzen denean, aukera asko ditu, hala nola, dendan arropa begiratzen hasi edo kafetegira joan. Kafetegi postura joaten bada, langile bat egongo da, eta bertan bezeroak guk eskaintzen ditugun produktuetatik nahi dituenak aukeratuko ditu.



- Bezeroak umeekin etortzen badira, guk umeentzako prestatuta daukagun egongela eskainiko diegu. Ondoren, bezeroak aitortuko digu zerbitzu hori nahi duen edo ez.

- Arropa begiratzen hasten denean, langile batek eskainiko dio kolorimetria sesio bat, erosleak aukera dezake zerbitzu hori eduki ala ez. Bezeroak baietz esaten badu, sesioa egingo zaio eta bestela ez.



- Bezeroa arropa ikusten hasiko da eta asesorearen laguntza izateko aukera izango du. Artikulu bat probatu nahi badu, aldageletara sar daiteke. Bestela zuzenean egin dezake erosketa.

- Arropa ez bazaio erabat ondo geratzen, dendako langile batek bere gorputzeko neurriak hartu, eta bezeroak nahi badu, arropa bere neurrira egingo zaio.

- Bezeroak arroparen bat pertsonalizatu nahiko balu (opari bat egiteko edo kuadrillako kamiseta bat sortzeko), aukera izango du argazkiren bat edo bordatu bat gehitzeko.

